

## Itzulpengintza

# Literatura unidirekzionala

Literatura Unibertsala bildumako titulu berriak hautatzeko lanean ari diren honetan, sail horren orain arteko ibilbideaz jardungo dugu hurrengo lerroetan, euskaraz gustura asko leituko genituzkeen zenbait idazle proposatuz, baita zenbait aspektu ekonomiko, estetiko eta –Euskal Herrian gaudenez, ezinbestean– juridiko ere.

### HEDO I ETXARTE

SARKASMORIK GABE derragun EIZIERen egitasmo den Literatura Unibertsala bilduma izan dela gurean –Igela argialetxearen apustuaz gain (43 ale Literatura Sailean, 7 Mintakan, 22 Sail Beltzean, eta 13 Enigman)– itzulpena sistematikoki egin duen egitasmo bakarra.

Saxofoia jotzen ez dakiten lehendakariaren garaian praxi komunikatiboaren parte da egun zerbait egin aurretik iragartzea. Webgune kutreetan bezala, Lanean ari gara! irakurri dugu. Literatura Unibertsaleko izenburu berriak hautatzen ere lanean ari dira. Antza 153 aleko lehen fasea amaituta lema bira emango dio bildumak, aurreko akatsak konpontzeko tenorean. Hemen eta han egindako adierazpenek kezka sortu didate, ez ote diren obren bila arituko baizik eta United Bizarres Of Benettonen xerkan, retolazera esatearren, idazleen presentzia literarioen bila. Harrigarria iruditu zait, operatiboki erraza iruditzen zaidalako, nola ez den kontsulta eta iradokizunetarako bide publikoa ireki fase berriari begira. Azken finean Euskararen Mapa (sic) bi ordutan egin daiteke garraio publikoan, eta Frantziako Euskal Herritik (sic) ere etor zitezkeen balizko bilera fisikoetara.

Susmoa dut katalogo berrian –anekdotikoki ez bada– ez dela poesiarik egongo eta halere nire ezinbestekoen ekarpena otu zait (Christine de Pizan, Anne Sexton, Marina Tsetaieva, Anna Akhmatova, Olga Bergoltz, Vladimira Cerepkova, Viola Fischerova, Else Lasker-Schüler, Claire Goll, Sylvia Plath, Ewa Lipska), saiakeran ere baten bat bururatu zait (Angela Davis, Rosa Luxemburg, Ulrike Meinhof, Judith Butler edo Mireille Boulaire hobetsiko nituzke Itziar Ziga edo Virginie Despentesen ereduaren aurrean) eta ez

nituzke ahaztuko euskarazko merkatuan periferikoak diren generoak ere.

Balizko bilera hori irekia izan zitekeen, irakurleak joango lirake, liburuzainak, filologiako eta itzulpengintzako lizentziadunak eta ikasleak, itzultzaileak eta kioskoetako saltzaileak. Gai zerrendan ezinbestekoa litzateke aztertzea zentrala izan den bilduma honek zer harrera izan duen, esaterako argialetxeen itzulpen politiketan. Oker egon naiteke, baina salbuespenak kenduta uste

dut bestseller berantiarak hedatu direla azken urteotako argitalpenetan. Alegia, linbotik at infernua.

Ondasun publikoa behar lukeen bilduman eztabaidagai litzateke ere liburuen lizentzia, CEDRO bezalako erakundetatik libro egonik Creative Commons lizentzietarik bat hautatzea dago, sareko hedaketa doako eta unibertsala barne.

Papereko edizioak 4-10 euro arteko prezioa behar luke (eta ez 20-24), euskaldunok beti ordaindu behar izaten ditugun bidesariak gainditzeko tenorean. Beste aukera bat hileroko errenta eta ondasunen araberrako ratioa kalkulatzea litzateke.

Fase berriari begira, eskergarria litzateke –literatura sistema normalduetan bezala– liburuen azalek ume eta nerabe literaturarako ohikoagoak diren ilustrazio infantilizatzailek ez balute. Irudi luke erretxindua nagoela baina bilduma hau irakurtzen duten ia guztien iritziak jaso ditut, eta perdoneu, però algú ho había de dir.

Pentsatzekoa da aholku hauek denak eta gehiago emateko izanen dela, eta nik bezala gratos emanen dituela, inongo batzorde berezitateko eskupeko estrarik gabe. Bestela ere erdaretan irakurtzen jarraituko dugu, unilateralki. ■

**Hemen eta han egindako adierazpenek kezka sortu didate, ez ote diren obren bila arituko baizik eta United Bizarres Of Benettonen xerkan, retolazera esatearren, idazleen presentzia literarioen bila**